



### Lana / La obra

Martina gure laguna desagertu denetik, urduri gaude guztiok, eta batez ere triste, lur jota. Eta normala da, izan ere, inork ere ez dakigu oraindik zer gertatu zen egun madarikatu hartan Martinarekin.

Egun hartan bereziki, ni pozak txoratzen nengoen, Martina eta bion artean gertatu zen pasadizotxoarengatik. Gure laguna desagertu baino ordubete lehenago gertatu zenarengatik. Baina ustekabean, une batetik bestera, zoritxarra heldu zen gure artera. Non arraio sartu zen Martina? Norbaitek bahitu al zuen?...

Nonbaitetik berehala agertuko zela pentsatzen genuen, baina ez zen horrelakorik gertatu. Hilabete igaro da, eta oraindik ez dugu haren arrastorik.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Bisera gorria**

Egilea / Autor: **Antton Kazabon**

Saila / Colección: Perzebal, 37

ISBN / EAN: 978-84-9109-344-2

Salneurria / Precio: 9,50 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orrri kopurua / N° páginas: 72

Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

### Egilea / El autor

**Antton Kazabon** (Oartzun, 1954). Maisu-ikasketak egin zituen. Haurtzaro ikastolan lanean hasi eta 1991 arte aritu zen bertan. 1994 arteko hiru urte hoiek Gipuzkoako Ikastolen Elkartean egin zuen lan Bertsolaritza ikastetxeetan izeneko proiektuan, ikasmateriala sortzen, irakasleak prestatzen eta bertso eskolak koordinatzen.

Ikasleei irakurtzeko zaletasuna pizteko ahaleginetan, irudiz jositako kontakizun laburrak argitaratzen hasi zen orain dela ia 30 urte. Geroztik genero gehienak landu ditu oiarzuarrak. Narrazioa, poemak, bertsoak...

Guztira 88 liburu kaleratu ditu orain arte, gehienak haur eta gazte literaturakoak direlarik.

